

X-Force komikiko irudi bat, Negu Gorriak eta Urtz musika taldeei keinu egiten diena. Behean, berriz, *Hell Hole* komikiko orrialde bat; besteak beste *Kaixo*, *Leire* eta *Pirinea* hitzak datoz.



# New Yorkeko **euskal** mamua



Superheroi amerikarren komikietan euskal jatorriko zantzuak aurkitu dituen komikizalea zur eta lur geratuko zen. Guillermo Zubiaga marrazkilaria izan da lorratzak utzi dituen.

## IDOIA ETXEBERRIA

**N**ola liteke Marvel argitaletxeko (New York) superheroien komikiliburuetan lauburuak, euskarazko esaldiak, Euskal Herriko parajeen posterrak eta Negu Gorriak taldearen afixak agertzea? Guillermo Zubiaga (1972, Barakaldo) marrazkilaria du erantzuna. Hark utzitako aztarnak dira. Irakurlari egindako keinuak. Zubiaga euskalduna da, baina urte mordoak daramatza AEBetan, komikiaren industrian lanean.

«Hasieran *ghost* edo 'mamú' lana egiten nuen: nahiko arrunta da komikigintzan. Lana egin arren, artistaren presentzia ez da nabaritzen: bere izena ez da kredituetan agertzen. Banekienez nire izena ez zela agertuko, nire lorratzak uzten nituen, euskal kultura-ekin lotutako zertzeladak han eta hemen». Bere izen-abizenak ere jarri zituen behin, polizia-etxe bateko atean, «nire aurpegiarekin, kartel batean: *Missing*». Hori bai, kredituetan agertzen hasi ostean ere ez zion keinuak egiteari utzi. Begirada zoliko komikizaleak hainbat adibide aurkituko zituen *X-Force* (*X-men* filmaren oinarria), *Witch-blade*, *Gen-X* eta *Hell Hole* komikietan.

Txikitatik du gustuko marraz-

tea. «Betidanik». Eta umetatik du euskalduna izatearen kontzientzia ere. «Franco hil baino hiru urte lehenago jaio nintzen, eta oso txikia banintzen ere, oso argi gogoratzen dut isilpeko ikastola batera joaten nintzela. Eskolaurtean. Kafetegite bateko sotoan bizpahiru gela zeuden. Goizero gure gurasoek isilean uzten gintuzten tabernan; tranpa-ohol bat zegoen, eta eskailera jaisten genituen. Geroago konturatu nintzen nire gurasoek nolako arriskua hartu zuten nik euskaraz ikas nezan». Barakaldon gertatu zen hori. «Bost urte nituenean Laukinizera joan ginen bizitzera». Baserrigiroa. «Eta hantxe jabetu nintzen industrializazio aroan baserrigiroa zela euskal nortasunaren oinarria, gure izaera berezia mantentzeko lokarria».

«Beharbada artearekiko nire zaletasuna ere etxeko giroan sortu zen: nire ama musikaria da eta aita arkitektoa. Eta beti izan dut artea oso gertu». Zehatz-mehatz ez daki esaten AEBetara zerk eramane zuten. Kontua da Batxilergoa Texasen amaitu zuela, ikasle-truke programa batekin. «Itzultzean, ikasketak Erresuma Batuan jarraitzeko asmoa nuen, baina ez zen posible izan». Patuak AEBetara eramane zuten bueltan. New Yorkeko estatura. «Uda osoan lan egin behar izan nuen hegazkin txartel hura erosteko». Arte Ederak eta Artearen Historia ikasi

**Hamar urtetik gora daramatza Guillermo Zubiaga bizkaitarrak New Yorken, marrazkigintzan**

**Hasieran 'mamú' gisa egiten zuten lana: haren izena ez zen inon agertzen; hortik euskal giroko keinuak egitearena**